

## Etxebizitza lehen lerroan jartzeko galdetegia

- Asmoa “gazteon errealitatea ahalik eta sakonen ezagutzea da, ostean hobekuntzak aldarrikatzeko”
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) ekainak 14 jasoko ditu [galdetegiaren](#) erantzunak

*Donostian, 2020ko maiatzaren 26an.* Gazteek emantzipatzeko dituzten arazoak ikusita eta COVID-19ari aurre egiteko neurrien artean etxebizitzako buruzkoetan hutsuneak identifikatuta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) galdetegia diseinatu du “etxebizitza lehen lerroan” jarri eta “gazteok bizi dugun errealitatearen irudi ahalik eta zehatzena izateko”. Gazteen Euskal Behatokiko azken datuen arabera “16 eta 30 urte bitartekoen soilik %22,6a” dago emantzipatua eta, gainera, hori egin ahal izateko “diru-sarreraren %88,3a bideratzen dute hilero alokairura”.

Esfortzu hori “gehiegizkoa” dela uste EGK-k eta horregatik bestelako etxebizitza-programa bat aldarrikatu du. “Azken urteetan emantzipazioa errazteko hainbat eredu ezagutu ditugu, Europan ibilbidea dutenak eta gurean abian jarritakoak, besteak beste cohousing-a, belaunaldi arteko elkarbizitza, pisu solidarioak edo alokairu soziala”. Elkarleen plataformak jakinarazi duenez gazteen iritzia kontrastatu nahi du, egun “administrazioek eskaintzen dituzten programen ezagutza aztertzeke, hauek nola osatuko lituzketen jakiteko eta gazteon errealitatera egokitzeko”

### COVID-19ak izandako eragina aztertzea helburu

Era berean, COVID-19ak gazteen bizitza errotik aldatu duenez etxebizitzan izandako eragina aztertzea da galdetegiaren helburua.

Galdetegia erantzuteke [esteka honetan](#) sartu besterik ez da egin behar. Erantzunak ekainaren 14a arte jasoko dira.

Informazio gehiagorako

688675932 (Jon)

[komunika@egk.eus](mailto:komunika@egk.eus)